

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

320/2020 Foru Agindua, irailaren 9koa. Urtarrilaren 9ko 5/2020 Foru Aginduaren bidez egindako informatika teknikarientzako deialdiko probak kalifikatu behar dituen epaimahaiaren osaera aldatzea. Deialdi hori ALHAOren 2020ko urtarrilaren 24ko 9. zenbakian argitaratu zen eta Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2018ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokio

Uztailaren 22ko 285/2020 Foru Aginduaren bidez, informatika teknikarien deialdiko hauta-probak kalifikatu behar dituen epaimahaiko kideak izendatu ziren.

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak hau ezartzen du 31.2. artikuluan:

“Epaimahaiak osatzerakoan, espezialitate-printzipioa betetzen den begiratuko da. Gutxienez epaimahaiko kideen erdiek lanposturako eskatutako ezagutza arloko titulazioa izango dute, eta denek ikasketa maila berdina edo handiagoa eduki beharko dute.”

Artikulu hori hainbat modutara interpreta daiteke; nolana ere, epaimahai kalifikatzailearen osaeran espezialitate printzipioa zorrotz betetze aldera, egokitzat jotzen da haren osaera aldatzea; hala, kideen erdiek baino gehiagok dute sartzeko eskatzen den jakintza arlo berari dagokion titulazioa.

Horregatik, hauexek eratuko dute epaimahai kalifikatzailea:

EPAIMAHAIBURUA

Titularra: José Ramón Ruíz García

Ordezkoa: Gonzalo López-Huerta Martínez de Aragón

EPAIMAHAIKIDEAK

Titularra: José Javier Aguirre Busteros

Ordezkoa: María Jesús Montaña Uribe

Titularra: Igor Goirizelaia Ziardegi

Ordezkoa: Rubén García de Andoin Gordo

Titularra: Sergio Izaga Ugarriza

Ordezkoa: Estíbaliz Laorden Castañeda

IDAZKARIA

Titularra: María Pérez de la Peña

Ordezkoa: Carlos Auzmendi Irastorza

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Urtarrilaren 9ko 5/2020 Foru Aginduaren bidez egindako informatika teknikarientzako deialdiko probak kalifikatu behar dituen epaimahaiaren osaera aldatzea. Deialdi hori ALHAOren 2020ko urtarrilaren 24ko 9. zenbakian argitaratu zen eta Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2018ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokio. Hauexek osatuko dute epaimahaia:

EPAIMAHAIBURUA

Titularra: José Ramón Ruíz García

Ordezkoa: Gonzalo López-Huerta Martínez de Aragón

EPAIMAHAIKIDEAK

Titularra: José Javier Aguirre Busteros

Ordezkoa: María Jesús Montaña Uribe

Titularra: Igor Goirizelaia Ziardegi

Ordezkoa: Rubén García de Andoin Gordoa

Titularra: Sergio Izaga Ugarriza

Ordezkoa: Estíbaliz Laorden Castañeda

IDAZKARIA

Titularra: María Pérez de la Peña

Ordezkoa: Carlos Auzmendi Irastorza

Bigarrena. Foru Agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtoa, hilabeteko epean, ebazpena eman zuen organoaren beraren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 9a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR